

# HIRUGARREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren C1 maila

## IDATZIZKO AZTERKETA

- Idatzizko azterketak **bi proba** ditu: irakurmena eta idazmena.
- **1h 25 min** dituzu azterketa egiteko.

	PROBEN EZAUGARRIAK	AURREIKUSITAKO DENBORA	PUNTUAZIOA (GEHIENEZ)	PUNTUAZIOA (GUTXIENEZ)
IRAKURMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bi ariketa dauzka. Biak egin behar dira.</li> <li>• Bi irakurgai dira eta guztira 25 item.</li> <li>• Lehenengo ariketan item bakoitzak 1,6 puntu balio du eta bigarrenean 0,6.</li> <li>• Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko.</li> <li>• Testuen luzera guztira: 850 hitz gehienez.</li> </ul>	35 min	20	10
IDAZMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ariketa bakarra egin behar da eta eskatutako hitz kopurua bete. Eskatutako hitz kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira.</li> </ul>	50 min	30	15

- **Irakurri** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.
- Egin **idazmen-probako ariketa** horretarako eman zaizun **aparteko orrian**.
- Azterketa-**koaderno hau** ez da jasoko, **zuzen da**.

### 1. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderai.

**Aukeratu erantzuna.** Bakarra da zuzena.

## BERANDU IZAN BAINO LEHEN,

### HEZEGUNEEN DESAGERPENA MUGATU BEHAR DUGU

Nature Right Gobernu Kanpoko Erakundeak dioenez, hoguei minutuero fauna- edo flora-espezie bat desagertzen da, urtero 26.280. Baina badira inolako harrabotsik egin gabe desagertzen diren beste elementu batzuk ere: hezeguneak —izan lokaztiak, aintzirak, mangladiak, zingirak edo padurak—. 1970az geroztik mundu mailako hezeguneen % 35 desagertu da. Azken aldi honetan, urtean % 0,85 eta % 1,6 artekoa da horien itzaltze-tasa —oihanena baino hiru aldiz handiagoa—. Handi zein txiki, denak daude kaltetuta.

Idorteak betidanik egon badira ere, 2000. urteaz geroztik bizkortu egin da erritmoa eta klima berotzearen ondorio zuzena dela argi gelditzen ari da: tenperaturaren igoerak uraren lurruntze handiagoa eragiten du. Fenomenoari ez zaionez behar besteko arretarik jartzen, kezkatuak dira hainbat zientzialari, tartean Herbehereetako eta Alemaniako batzuk, *Communications Earth and Environment* aldizkarian *The other side of sea level change* («Itsas mailaren aldaketaren beste alde») iritzi-artikuluaren egileak. «Nahiz eta barrualde kontinentalen lehorteak arazo garrantzitsutzat jotzen den ur gezaren eskasiari dagokionez, aintziren mailan duen eraginak beste ondorio sakon asko izanen ditu —gutxietsi egiten direnak—, alta milioika pertsonaren biziraupenari eta ekonomiei eragingo die». Horregatik, Nazio Batuen Erakundeari zein IPCC Klima-aldaketari buruzko Gobernuarteko Taldeari fenomeno mugatzeko estrategiak gaurdanik bideratzeko eskatzen diete.

Fenomeno hori erabaki politikoetan integratu behar dela argi du Martha Rojas Ramsarko Hitzarmenaren idazkari nagusiak ere: «Legegileek programa politikoetan integratu behar dute errealitate hau, hezeguneen biziraupenaren alde inbertitu behar dute. Oso azkar desagertzen doan

ekosistema honen garrantziari buruzko heziketa bideratu behar dugu, hezegunerik gabe denok gaudelako arriskuan». 1975ean sartu zen indarrean hezeguneei buruzko hitzarmen hori eta babestu beharreko garrantzi handiko espazioen zerrenda osatzen dihardute —% 15 dago zerrendan sarturik—, tartean daude Mundaka-Gernikako itsasadarra, Salburuako hezegunea eta Pitillasko aintzira, besteak beste. Besterik ezean, «gune babestu» gisa sailkatzea dugu aterabidea, bestela desagertu egingo direlako, dudarik gabe.

Ekoizpenerako oztopo, joan-etorrietarako traba, bakterioentzako ohande eta eritasun-iturri... fama txarra dute hezeguneei eta desagerraraztea izan da urte luzeetako logika. Dena den, fama txarra izanik ere «ezinbestekoak» dira. Batetik, bioaniztasunaren altxor-gune direlako. Izan ur geza- zein elikagai-iturri, gizakion biziraupenerako beharrezkoak izateaz gain, munduko espezieen % 40k behar ditu bizitzeko eta ugaltzeko, eta espezie horien % 25 dago desagertzeko arriskuan. Bestetik, klima-aldaketa murrizteko ere beharrezkoak dira —nahiz eta metano igoerak ere izan—. Zenbaki esanguratsu bat: munduko azaleraren % 3 diren zohikaztegiak munduko CO2 kantitatearen % 30 atxikitzen dute. Gainera, klima-larrialdiaren ondorioez babesteko ere beharrezkoak ditugu —uholdeak direnean ura gordetzen dutelako, eta idorteak direnean lurzoruan dituzten erreserbak poliki-poliki askatzen dituztelako, bizidunok ezinbestekoa dugun ura eskaintzeko—.

**BERHOKOIRIGOIN, J. Argia, 2021eko maiatza.  
Egokituta**

## 1. ariketa. Aukeratu erantzuna

### 1. Zerk du eragin zuzena hezeguneetan?

- a) Klima berotzeak eragindako temperatura-igoerak.
- b) Azken urteotan urritu arren, izandako idorteeak.
- c) 2000. urteaz geroztik jarri zaien arreta handiak.

### 2. Zer dio testuak aintziren lehortzeaz?

- a) Askok ur gezaren eskasiaren arazoa gutxietsi egiten dutela.
- b) Ekonomian eraginik ez badu ere, arazo handia dela.
- c) Badela garaia aurre egiteko estrategiak abian jartzeko.

### 3. Zer ekarri du hezeguneei buruzko hitzarmenak?

- a) Euskal Herrian hamabost «gune babestu» izendatzea.
- b) Hezeguneei behar besteko garrantzia ematea.
- c) Hezeguneen inguruko erabakiak politikatik at geratzea.

### 4. Zergatik dute hezeguneeak fama txarra?

- a) Bioaniztasunari kalte egin diezaioketelako.
- b) Gaitzen baten sorlekua izan daitezkeelako.
- c) Urte luzeetan traba izan direlako ingurumenerako.

### 5. Zergatik dira ezinbestekoak hezeguneeak?

- a) Espezie guztiek bizirauteko bermea direlako.
- b) Metano-isuriak murrizten laguntzen dutelako.
- c) Klima-larrialdiaren aurkako babesa direlako.

## 2. ariketa

**Hutsuneak bete.** Testutik zenbait hitz ezabatu ditugu. Erantzun-orrian aukera ezazu zenbaki bakoitzari dagokion hitza.

## KOORDINAZIO FALTAK BIRBIKTIMIZATUTA

Sexu-abusuak jasaten dituzten adingabeei arreta integrala emateko, *Barnahus* ereduaz ezarriko dute Hego Euskal Herriko administrazioek. **6**, eragileek salatu dutenez, sistema «zaticatuta» dago, eta sarritan ondorio larriak ditu haurrengan.

**7** bateraturik ez, koordinazio eskasa, trebakuntza gutxi, komunikazio kaskarra. Hautzarroan jasandako sexu-abusuen **8** ugaritu egin dira azken urteetan, eta, horien **9** handitu ahala, areagotu egin da biktimen arretan dauden hutsuneen inguruko ezinegona. «Hainbat kasutan ikusi genuen administrazio-atal askok esku hartu ohi zuela, baina batzuetan biktimaren kalterako ere izaten zela, **10** erakunde batek ez zekielako bestea zertan zebilen», aitortu du Elena Aiarzak, EAEko Arartekoko Haur eta Nerabeentzako Bulegoko arduradunak. **11**, Hego Euskal Herriko erakunde publikoetara ere iritsi da kezka, eta, horri erantzunez, hainbat neurri hartu dituzte: Espainiako Gorteek ekainean onartu zuten haur eta nerabeen babes integralerako legea —berariazko **12** lantzen ari dira orain Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernu—, eta, artaren alorrean, *Barnahus* ereduaz zabalitzen ari dira. «Gauzak aldatzen ari dira», **13** du Aiarzak.

Save the Children erakundeko EAEko zuzendari Charo Arranzek ere **14** du «sentsibilitate berezia» adingabeen aurkako bortizkeriaren inguruan: «Gauzak hobetzeko inplikazio eta konpromiso handia ikusi dugu erakundearen eta profesionalen partetik». Dena den, abiapuntua ez da batere **15**: «Ez dago arreta integralik; arlo ezberdinetako langileak ez daude koordinatuta. Sistema zatikatuta dago; badaude praktika onak, baina ez dira unibertsalak. Eta ez dago eragile guztientzat **16** izango den protokolo komun eta argirik». Diagnostiko hori egina du Arartekoak ere: 2018an, halako kasuetan esku hartzen zuten eragileak bildu zituen, eta, **17** baten ostean, gomendioak egin zizkien aurtengo maiatzean. «Arazoak zeuden, baina ez **18** txarragatik, baizik eta bakoitza bere kabuz ari zelako. Sistemak ez zuen koordinatuta funtzionatzen, eta haurrak galdu egiten zitzaizkigun sistemaren zirrikietan, eta, **19**, min handia eragiten genien», azaldu du Aiarzak.

Arartekoko kideak argi du: «Elkarrekin lan egingo bagenu, kasu gehiago aterako lirateke aurrera». Hori da, hain justu, Save the Childrenek **20** *Barnahus* ereduak ekarri nahi duena. «Gune berean elkartuko dira adingabeen sexu-indarkeria kasuetan esku hartzen duten eragile guztiak: lantalde psikosozialak, osasun-sistema, segurtasun-indarrak, justizia-administrazioa eta hezkuntza», azaldu du Arranzek. Jaurlaritzak joan den astean aurkeztu zuen Gasteizen proba gisa abiatu nahi duen **21**.

Charo Arranz jakitun dago *Barnahus* ereduak ez dituela **22** berehala askatuko, «baina arreta hobetzeko pausoak eman behar dira, horren arabera izango baita adingabeen osatzea eta suspertzea». **23**, Espainiako legeak ekarritako beste berrikuntza bat goratu du: haurren aurkako bortizkeria salatzea betebeharra izango da herritarrentzat eta profesionalentzat. «Gizarteari erraz jarri behar zaio — *Barnahus* ereduaz martxan jarri den herrialdeetan, **24** hirukoiztu egin dira —, ezinbestekoa da haurrak babesteko». Hain zuzen ere, Elena Aiarzak ohartarazi du bortxa horren gizarteratzea hasi besterik ez dela egin: «Abusuen parte bat ikusezina da oraindik, eta **25** egin behar da».

ASENSIO, M. *Berria*, 2021eko azaroa. Egokitua

**2. ariketa. Aukeratu hutsuneak betetzeko hitz egokia**

6. a) Horiek horrela  
 b) Izan ere  
 c) Hurrenez hurren  
 d) Batez beste

7. a) Aurrekari  
 b) Oniritzi  
 c) Ateraldi  
 d) Irizpide

8. a) testigantzak  
 b) emanaldiak  
 c) huskeriak  
 d) sustraiak

9. a) oihartzuna  
 b) ekoizpena  
 c) burutazioa  
 d) ordezkariak

10. a) batez beste  
 b) batik bat  
 c) beren-beregi  
 d) behinik behin

11. a) Halere  
 b) Haatik  
 c) Halaber  
 d) Hortaz

12. a) abileziak  
 b) zantzuak  
 c) araudiak  
 d) itzalak

13. a) ekoitzi  
 b) ebatsi  
 c) eutsi  
 d) erantsi

14. a) ustiatu  
 b) arakatu  
 c) antzeman  
 d) igorri

15. a) antzua  
 b) samurra  
 c) hertsia  
 d) zorrotza

16. a) baliagarria  
 b) oroigarria  
 c) hunkigarria  
 d) galgarria

17. a) aitormen  
 b) gogoeta  
 c) oroimen  
 d) burutaldi

18. a) ustiapen  
 b) izaera  
 c) borondate  
 d) jabetza

19. a) apika  
 b) bidenabar  
 c) gainera  
 d) esaterako

20. a) arbuiaututako  
 b) hornitutako  
 c) uztartutako  
 d) sustatutako

21. a) egitasmoa  
 b) eranskina  
 c) emanaldia  
 d) eskumena

22. a) laginak  
 b) itzalguneak  
 c) aleak  
 d) korapiloak

23. a) lldo horretan  
 b) Hala ere  
 c) Oraindik ere  
 d) Esate baterako

24. a) ebazpenak  
 b) irakaspenak  
 c) esleipenak  
 d) jakinarazpenak

25. a) ardaztu  
 b) azaleratu  
 c) artatu  
 d) alderatu

### Oharrak

- Ondoren, **idazmenerako ariketa** duzu.
- Oso kontuan hartu behar dituzu gaia eta eskatzen zaizun ariketa mota.
- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten: **ez da zuzenduko irakurri ezin denik.**
- Erabili boligrafoa idazteko.
- Zuzentzeko orduan, hauexek hartuko dira kontuan:
  - Eskatutako guztiari erantzun diozun.
  - Ideiak garbi adierazi dituzun.
  - Euskara nola erabili duzun: egokitasuna, zuzentasuna eta aberastasuna.

**ZIRRIBORROAK EGITEKO LEKUA ONDORENGO ORRIETAN DAUKAZU.**  
**EGIN ARIKETA HORRETARAKO EMAN ZAIZUN APARTEKO ORRIAN.**

**Ariketa: Iritzi-artikulua idatzi herriko aldizkarirako**


- **Egoera kontuan hartu** eta gaiari buruz daukazun iritzia azaldu behar duzu. Ez egin helbururik gabeko idazlanik: iritzia eman eta arrazoitu egin behar duzu, herriko aldizkarirako baita.
- **Gutxienez 180 hitz** idatzi behar dituzu.
- Laguntza gisa, gaiaren inguruko informazioa ematen dizugu batetik, eta bestetik, gaia garatzeko erabil dezakezun zenbait ideia.
- Testu antolatua eta koherentea egin behar duzu. Iritziak azaldu egin behar dituzu, daukazun ideiak garatu eta lotu. Hortaz, lagungarri gisa ematen zaizkizun informazioko esaldiak ezin dituzu besterik gabe kopiatu.

**EGOERA:** Gazte-taldeek eragindako indarkeria-kasuek, batez ere, kolektibo jakin batzuk dituzte jomuga. Azkenaldiko gertakariak larritu egin dute gizarte osoa eta lehenbailehen neurriak hartu behar direla erakutsi dute.

Gaiak kezkatuta, herriko aldizkarian idaztea pentsatu duzu.

**Gaia: GAZTE-TALDEEN INDARKERIAREN AURREAN, ZER?**

Coruñan egindako eraso hilgarriak edo Zornotzan jipoitutako gaztearen jazoerak gazte-taldeen indarkeriaren tamaina adierazten dute.



Indarkeria kasu gehienak arrazakeriari eta xenofobiari lotuta egoten dira eta beldurra zabaltzea dute helburu.

Talde horietako partaide asko adingabeak dira, 12-16 urte bitartekoak, eta ez dituzte gizartean ditugun arauak onartu nahi.



Gazte-talde horiek sare sozialak erabili ohi dituzte portaera bortitzak bultzatzeko eta beren ekintzak erakusteko.

- Zein dira gazte-taldeen indarkeriaren arrazoiak?
- Zer egin daiteke gazte horien portaera zuzentzeko?
- Zer garrantzi dute sare sozialek?
- Familiak badu erantzukizunik? Eta eskolak? Zer egin lezake Administrazioak?

**Zirriborroetarako lekua**  
Ez da aztertuko hemen idatzitakorik



**Zirriborroetarako lekua**  
Ez da aztertuko hemen idatzitakorik

**Zirriborroetarako lekua**  
Ez da aztertuko hemen idatzitakorik

**Zirriborroetarako lekua**  
Ez da aztertuko hemen idatzitakorik

**IVAP**

HERRI ARDURALARITZAREN  
EUSKAL ERAKUNDEA

■ **1 ariketa:** aukeratu erantzuna.

■ **Irakurgaia:** «Berandu izan baino lehen, hezeguneen desagerpena mugatu behar dugu»

1.	A	2.	C	3.	B
4.	B	5.	C		

■ **2. ariketa:** hutsuneak bete.

■ **Irakurgaia:** «Koordinazio faltak birbiktimizatuta»

6.	B	7.	D	8.	A
9.	A	10.	B	11.	C
12.	C	13.	D	14.	C
15.	B	16.	A	17.	B
18.	C	19.	C	20.	D
21.	A	22.	D	23.	A
24.	D	25.	B		